

**ASTIGARRAGAKO UDALEAN EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA.
VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027)**



Astigarragako Udala

Astigarragan, 2025eko abuztuan

SARRERA	3
VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). ASTIGARRAGAKO UDALA	6
HELBURU ESTRATEGIKOAK	7
UDALAREN DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK	8
1. Ardatza: KUDEAKETA	8
2. Ardatza: ERABILERA	20
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA	20
2.2 LAN-HIZKUNTZA	26
2023-2024-2025eko KUDEAKETA PLANA	
ERANSKINAK	
I Eranskina: Adierazleen Aginte Panela	36
II Eranskina. Diagnostiko kuantitatiboaren emaitzak eta puntuazioa	39
III. Eranskina Lanpostu zerrenda	42
IV. Eranskina. Hizkuntza irizpideak	55

SARRERA

KOKAPENA

Astigarragako Udalak 2023ko udazkenetik dihardu VII. Plangintzaldiari begira lanean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategiko berria zehazteko.

2022ko irailean egikaritu zen Kultura-jaiak eta Euskara-Hezkuntza zerbitzuen arteko banaketa. Eta euskara eta hezkuntzako teknikaria eta saileko arduradunaren lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua 2024ko irailean amaitu zen.

Halaber, 2023 eta 2024 urteetan zehar Udaleko sailen arteko koordinazioa hobetzeko berrantolaketa-prozesua gauzatu da. Hainbat hilabeteetako prozesuaren ondoren, 2024ko maiatzaz geroztik lau eremu nagusitako (Herritarrak, Ongizatea, Antolaketa, Lurraldea) egitura berriarekin dihardu lanean Udalak.

Testuinguru horretan, udalerrira begirako 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoa egitea lehenetsi du Udalak; euskararen normalizazioa bultzatzeko, Udaletik garatuko diren hizkuntza politikak aurrera eramateko datozen bost urteetarako bide-orria jasotzen du planak.

Bost urteko ikuspegi estrategikoarekin, ad intra (barrura begira) euskarazko jardunak zer toki izango duen udalean eta hobetzeko zein urrats eman behar diren jasotzen dira Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategiko berri honetan. Planak 2027 urte arteko indarraldia izango du eta udalak aurrerantzean erabiliko dituen hizkuntza-irizpideak jasotzen dira; UEMAREN hizkuntza- irizpideak aintzakotzat hartuta.

LAN PROZEDURA, METODOLOGIA, HELBURUAK ETA PRINTZIBIOAK

Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren baitako hizkuntza-planifikaziorako oinarritzko eta funtsezko lanabes gisa ondu da UEMAK eta Udalak elkarlanean egindako plana.

Dekretuan jasotako erakundeen hizkuntza-normalizazioko helburuak berretsiz, hauek dira plan estrategikoaren helburu nagusiak:

- a) **Euskararen erabilera normala eta orokorra:** euskara, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko hizkuntza, euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen hizkuntza ofiziala da, gaztelania bezala, eta, beraz, zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da, erabilera normala eta orokorra izango duena haien jardueretan, halako moldez non euskararen presentzia ere arian-arian finkatuko den euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen jarduera guztietan.
- b) **Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen hizkuntza-politika bideratuta egongo da herritarrek haiekin dituzten harremanetan hizkuntza-eskubideak erabat gauzatzera.

c) **Berezko hizkuntzaren erabileraren aldeko ekintza argiak abiaraztea, hizkuntza-aniztasuna sustatzea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta:**

- Euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek behar diren neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera mugatzen duten edo euskararen erabileraren kalterako diren oztopoak ezabatzeko.
- Euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek haien zerbitzura dauden langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna etengabe hobetzea sustatuko dute, beren jardunak une oro hizkuntza zuzen, zehatz, argi eta egokian egin ditzaten, aukera emanez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna baino goragokoak egiaztatzeko prestakuntza jaso dezaten.

Printzipio behinenak hauek dira:

- a) **Diskriminaziorik ezaren printzipioa:** ez da inor baztertuko erabiltzen duen edo erabili nahi duen hizkuntza ofiziala dela-eta.
- b) **Efikaziaren eta efizientiaren printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek efikazia- eta efizientzia-printzipioen eskakizunetara egokituko dute beren hizkuntza-plangintza, eskura dituzten baliabide publikoak zentzuz erabiliz, jardueren plangintza eta ebaluazio egokian oinarrituta.
- c) **Autoantolaketa-printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek hizkuntza-politikaren gobernuan eta administrazioan parte hartu ahal izango dute, beren organoen bitartez. Bakoitzaren eskumenen esparruan, euskal sektore publikoa osatzen duen entitate bakoitza arduratuko da hizkuntza-arloa kudeatzeaz.
- d) **Ekintza positiboaren printzipioa:** euskal sektore publikoa osatzen duten entitateek neurriak hartuko dituzte euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabileraren kalterako diren bereizketak, bazterketak, murrizketak edo justifikaziorik gabeko lehenespenak ezabatzeko ere. Euskararen erabileraren alde hartzen diren neurri bereziak –euskaldunen eta gaztelania-hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko egikaritzen direnak– ez dira joko gaztelaniaz aritzen direnak diskriminatzeko egintzatzat.
- e) **Proporzionaltasun-printzipioa:** euskal sektore publikoko entitateek, beren hizkuntza-normalizazioko prozesua diseinatzean, bermatu beharko dute proposatzen dituzten neurriak egokiak direla lortu nahi duten helburu legitimoa lortzeko, ez dagoela helburu hori efikazia berarekin lortzeko hain kaltegarria ez den beste neurririk, eta neurriak haztatuak edo orekatuak direla, haien aplikazioaren ondorioz interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo interesetarako eragiten diren kalteak baino.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Saiolburuordetzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia (KEMEN) erabili du Astigarragako udalak, Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategiko adiseinatzeko. Kudeaketa eta erabilera, bi ardatz nagusitan

banatutako 48 adierazleri erreparatuta garatu da plan estrategikoa; SAREGIN aplikazioa informatikoaren bidez.

Behin udal langile guztiei plana egiten hasiko ginela jakinarazi ondoren, Astigarragako Udalean euskararen erabilera nola kudeatzen den ezagutzeko argazki bat osatu da. Diagnostikoa osatu da informazioa jasotzeko hainbat iturri erabilia.

Alde batetik, bi galdetegi-eredu bete dira: langileen galdetegia (37 erantzun jaso dira; 19 emakumezko, 17 gizonezko eta ez bitar bat) eta erakundeari dagokiona. Bestetik, alderdi kualitatiboan lanketa ere egin da. Zenbait langile eta sail-arduradunekin lan-saio zehatzak egin dira. Eta, azkenik, zuzeneko behaketa batzuk ere egin dira.

Laburtuz, hauxe izan da diseinatu eta aurrera eramandako lan-sekuentzia: KOMUNIKAZIOA-DIAGNOSTIKOA-GARAPENA-ONARTZEA-KOMUNIKAZIOA-EBALUAZIOA.

VII. PLANGINTZALDIARI BEGIRA

Azken 20 urteetan etengabe hazi da biztanleria Astigarragan. Biztanle-kopurua igo ahala, azken hogeitun urteetan 5 puntu igo da euskararen ezagutza herrian. Astigarragan, herritarren % 64,97 da euskal hiztuna¹; %16,59 euskal hartzaileak² dira. Erdaldun elebakarrak³ % 18 dira herrian (EUSTAT; 2021).

Euskararen ezagutza igo egin den arren, Astigarragako egoera soziolingustikoak bilakera gorabeheratsua izan du azken 20 urteetan. 2022ko urte amaiera ezkerro da UEMAko kide Astigarragako Udala.

Udalak urteetan egindako lanaren ondorioz, Udala gai da zerbitzua euskaraz emateko. Udal barruko euskararen normalizazioan aurrerapenak egin ditu Udalak berak. VII. Plangintzaldi honetan, aukera dago urrats gehiago emateko; euskararen kudeaketa orokorra hobetuz, indar berezia jarriko da hizkuntza-irizpideak bete, betearazi eta horren jarraipena egitean. Baita arduradu politikoen nahiz sail arduradunen lidergoan eta erabilera-planaren komunikazioan ere.

Atarikoan aipatutako arrazoiaren ondorioz, 2025ean onartuko da Plana. Eta indarrean egongo da VII. Plangintzaldi osoan (eta plan berria onartu bitartean). Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 18.artikuluan xedatzen denez, horren berri emango dio udalak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren eskumena duen sailari.

Plangintzaldiaren bi unetan gutxienez entitateak barne-ebaluazioa kuantitatibo eta kualitatiboa egingo du, eta webgunean argitaratu. Amaierako ebaluazioaren datuak izango dira hurrengo plangintzaldirako hasierako-diagnostikorako oinarri.

1 Euskalduna gai da euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiteko.

2 Gai da euskara nekez edo ondo ulertzeko, eta baita nekez hitz egiteko ere. Gai da ondo ulertzeko, baina ez ondo edo nekez hitz egiteko.

3 Erdalduna ez da gai euskara ez nekez ez ondo ulertzeko, ezta hitz egiteko ere.

VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). ASTIGARRAGAKO UDALA.

Plan Estrategikoaren izena:

Astigarragako Udala 2023-2027 Plan Estrategikoa.

Bisioa

Udalan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea; bai lan- hizkuntza gisa, bai zerbitzu-hizkuntza modura, euskararen erabilera eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko (Hizkera inklusiboa eta ez-baztertzailea –ez-sexista- erabiliko da).

Derrigorrez bete beharreko indizea

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 25. artikuluan ezartzen da derrigorrezko eskakizunen indizea; alegia, (euskaldunak +(ia euskaldunak/2)).

2021eko eroldako datuen arabera, Astigarragako Udalari % 74,19 dagokio.

Izaera: euskarazko administrazio unitatea

19/2024 dekretuan zehaztutakoaren arabera, Plan Estrategikoaren baitan entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu (beren eginkizunak nagusiki euskaraz beteko dituztenak, alegia).

Euskarazko administrazio unitateak dira lanpostuen % 80an, gutxienez, lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak (arduraduna barne). Astigarragako Udal osoa izango da euskarazko administrazio unitatea.

PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA

Txosten honetan jasotzen den plan estrategikoa Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako metodologia eta irizpideak (KEMEN) jarraituz egin da.



HELBURU ESTRATEGIKOAK

KUDEAKETA		EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Egitura egonkorra eratu planaren jarraipenerako udaleko langile eta ordezkari politikoekin Euskararen kudeaketa orokorra udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistematizatzea. Hizkuntza irizpideak onartzea Erabilera planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea.
		LIDERGOA	Udal ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea. Udal ordezkari eta arduradunek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea. Udal ordezkari eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat eredugarri izatea.
		LANGILEAK	Langileek euskara maila hobetzea, bereziki lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak, edo eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak. Hautaprobetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea.
		GAITASUNA	Ordezkarari politikoak eskaldunak izan daitezen sustatzea. Gaitasunik ez duten ordezkari politikoak laguntza eta trebakuntza eskaintzea udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko.
		HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratuetakoa hizkuntza klausulak txertatzea. Kontratuetakoa hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea Dirulaguntzetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea. Udal baimeneterako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea
ERABILERA	ZERBITZU HIZKUNTZA	IRUDIA	Hizkuntza irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan. Hizkuntza kalitatea zaintzea. Arduradun politikoek agerraldietako hizkuntza irizpideak betetzea, eta ETB2n euskaraz aritzea.
		HERRITARREKIKO HARREMANAK	Ezarririkoa hizkuntza irizpideak betetzea Langileak eta udal ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz. Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.
	LAN HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea. Lankideen arteko ahozko erabilera sustatzea Ofizios abiartzen diren prozedura administratibo guztiak euskaraz abiatzea.
		KANPO-HARREMANAK	Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea Erakunde pribatuen euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.
		PRESTAKUNTZA	Langile guztiei hizkuntza formakuntza eskaintzea. Langileei eskaintzen zaien formazioa euskarazkoa izatea. Langileak hizkuntza eta generoa uztartzen dituen gaietan trebatzea.
		BALIABIDE INFORMATIKOAK	Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea. Lan tresna guztiak euskaraz jartzea. Baliabide informatikotatik eratorritako inprimaki eta dokumentazioa hizkuntza irizpideen arabera izatea.
		SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz sortzea. Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea. Testua sortzerakoan hizkera inklusiboa erabiltzea.

UDALAREN DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK

Kudeaketa eta erabilera markoa euskararen normalizaziorako

Autodiagnostikoan Astigarragako Udalak jasotako puntuazio osoa da:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
69,20	692,33	86,70	867,05	17,50	174,72

1. ARDATZA:KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
37,01	111,03	71,76	215,30	34,75	104,27

ERRONKAK

- Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.
- Euskara Planaren jarraipen sistematikoa egitea.
- Hizkuntza-irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.
- Arduradun politikoaren zein langileen konpromisoa eta lidergotza sustatzea.

1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
15	9	75	45	60	36

Egoera:

Astigarragako Udalak plan estrategikoak eta kudeaketa planak kudeatzeko egituraketa eraginkor, finko eta iraunkor bat eratzeko beharra du.

Euskararen indarberritzean eragiteko asmoz, Udaleko euskara eta hezkuntza sailaren eta UEMAREN artean diseinatzen, inplementatzen eta ebaluatzen dira hizkuntza-plangintzari

dagozkion plan eta ekimenak. Alabaina, lanketa integralagoa egiteko, hots, hizkuntza-kudeaketa zeharkakotasunez lantzeko, nahitaezkoa da **Erabilera Planaren Jarraipen Batzordea** osatzea. Batzordea honela osatuko da:

- Euskara eta Hezkuntza saileko arduradun politikoa.
- Euskara eta Hezkuntza saileko teknikaria, saileko arduraduna.
- UEMAKo hizkuntza-normalizatzailea.
- Udaleko langile ordezkariak.
- Udal langileak (kasuan kasu).

Batzordearen zeregin nagusiak hauek izango dira:

- Udalaren kudeaketan hizkuntza-irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea (behar izanez gero).
- Erabilera-planaren jarraipena egitea.
- Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea.
- Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea.

Egindakoak:

- Aurreko plangintzaldian (2018-2022) erabilera-plana egin zen.
- Urteko kudeaketa lanak egin dira (UEMArekin lankidetzan).
- 2024-2029 Astigarragako Euskararen Plan Estrategikoa egin da.
- Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren gaineko Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin da. Astigarragako ELeren ordenantza onartzeko prozesua martxan dago.

Indarguneak:

- Sailen arteko koordinazioa hobetzeko, sailen arteko berrantolaketa-prozesua bideratu da. Hainbat hilabetetako prozesuaren ondoren, egitura berriarekin dihardu lanean Udalak 2024ko maiatzaz geroztik: lau eremu (HERRITARRAK, ONGIZATEA, ANTOLAKETA, LURRALDEA) eta Koordinazio Mahaia.

Zer hobetuak:

- Hizkuntza-irizpideen sistematizazio maila hobetzea eta jarraipena modu koordinatuan egitea.
- Euskara-hezkuntza sailaren finkatzea eta sendotzea:
 - 2022ko irailean egikaritu zen Kultura-jaiak eta Euskara-Hezkuntza zerbitzuen arteko banaketa.
 - Euskara eta hezkuntzako teknikaria eta saileko arduradunaren lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua 2024ko irailean amaitu zen.
 - Sailean ez dago normalizatzaile ezta itzultzaile lanposturik.
 - Kultura-jaiak eta euskara-hezkuntza zerbitzuek administraria eta Erriberako atezain-administrati laguntzailea partekatzen dute saileko administrazio lanak egiteko. Kontuan hartu behar da, dirulaguntza gehien bideratzen dituen saila izanik, administrazio lanek, sarri, sailaren martxa izugarri moteltzen dutela (zerbitzuburuak administrazio lanei ere heldu behar dielako).

- Astigarragako udalerrak hezkuntza arloan erronka estrategiko ugari ditu: Haurreskola, Astigarragako Herri Eskolako handitze obrak, DBHko ikastetxea eraikitzea...

Helburu estrategikoa(k):

- Erabilera Planaren Jarraipen Batzordea osatzea eta udaleko berrantolaketa berriaren baitan behar bezala uztartzea.
- Euskararen kudeaketa orokorra udalaren kudeaketaren baitan integratzea eta sistematizatzea.
- Erabilera-plana ondo komunikatzea (langileei eta arduradun politikoei).
- Hizkuntza irizpideak onartzea.
- Erabilera planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza irizpideen betetze mailaren jarraipen sistematikoa egitea.

1.0.1. arloaren adierazleak

1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du				
	<ul style="list-style-type: none"> • Plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema eraginkor bat osatu behar da; ahal dela, sail guztien parte-hartzearekin. Aukera bat da udaleko berrantolaketa berriaren baitako eremu-mahaiak baliatzea horretarako. Bestela, Erabilera Planaren Jarraipen Batzordea sail bakoitzeko ordezkariekin biltzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
0	0	75	18	75	18

1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da				
	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera planaren jarraipen sistematikoa egitea, horretarako egitura finko bat sortuta. • Urteko kudeaketa-plana osatu eta jarraipena egin. • Udalaren aginte-organoetan zeharkakotasunez lantzen diren gai/arloekin (Berdintasuna, Toki Garapena, Jasangarritasuna...) lankidetzarako bideak martxan jarri eta udaleko eremu guztietan eragiteko sinergiak baliatzea (estrategikoki, lehentasunez, Berdintasun sailarekin). 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25	9	75	27	50	18

1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).				
	<ul style="list-style-type: none"> • Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko ordenantza onartzea. Ordenantzari buruz informazioa ematea gainerako sailei eta ELEaren tramitea dagozkion espediente guztietan txertatzea (sistematikoki, Euskara azpisailetik pasatu daitezzen). ELE egitea dagozkion plan guztietan. • ELEren ordenantza lankidetzarako bideak martxan jarri eta udaleko eremu guztietan eragiteko sinergiak baliatzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
100	0	100	0	0	0

1.0.2 arloa. LIDERGOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
16,60	12,46	50	37,50	33,40	25,04

Egoera:

Astigarragako Udaleko Euskara-Hezkuntza saileko arduradunak eta UEMAko teknikariak parte hartzen dute euskara arloko kudeaketarekin lotura duten bileretan. Ordezkeri eta arduradun politikoen inplikazioa altua da, gai erabakiorrenetan esku hartzen dutelarik.

Egindakoak:

Legegintzaldi hasieran ordezkari politiko guztiekin egindako bileraz gain, ez da aparteko lanketarik egin (ez arduradun politikoeekin ezta gainerako sailetako arduradunekin ere), euskararen erabileran lidergoa lantzeko.

Indarguneak:

- Ordezkeri politiko guztiak euskaldunak dira.
- Sail guztietako arduradunek euskaraz lan egiteko gaitasuna dute.
- Sail ezberdinetako langile ugari euskararen aldeko jarrera proaktiboa dute.

Zer hobetuak:

- Jabeaztea udal ordezkari guztiak gizartearen aurrean duten erantzukizuna, eredugarriak eta koherenteak izan daitezzen.

- Udal sailtetako arduradunek hizkuntza-kudeaketa eta euskararen indarberritzea zeharlerrotzat hartzea eta eguneroko jardunean bere-egitea.

Helburu estrategikoa(k):

- Udal-ordezkarari eta arduradunak euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.
- Udal-ordezkarari eta arduradunak hizkuntza-irizpideak ezagutzea, betetzea eta gaineko langile guztiei betearaztea.
- Udal-ordezkarari eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat eredu garri izatea.

1.0.2 arloaren adierazleak

1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Udal langile guztiei eta udalbatza osoari erabilera-plana aurkeztea. • Jarraipen Batzordean arduradun politikoa(k) inplikatzeko. • Beste sailtetako arduradunak argi izatea zer egin behar duten beren egunerokoan euskararen erabilerari dagokionez. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
8,20	3,08	50	18,75	41,80	15,67

1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezkeen.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalduz eta motibazio saioak eskaintzea udal langileei eta ordezkari politikoei. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25	9,38	50	18,75	25	9,37

1.0.3 arloa. LANGILEAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
73,41	44,04	90,58	54,34	-17,15	10,30

Egoera:

Langileek ez dute aurreko Erabilera Planen ezagutza sakonik. Orain arte, ez da Erabilera Planaren inguruko lanketa sendorik egin.

Langile gehienek jakin badakite udaleko lan hizkuntza euskara dela; badakite dokumentuak euskaraz edo ele bitan egin behar dituztela. Langile gehienek ahalegina egiten dute hori betetzeko, baina sarritan irizpide argirik gabe.

Egindakoak:

Beharren arabera, unean uneko kontsultak egiteko, euskara arloko teknikariarengana jotzen dute langileek.

Indarguneak:

- Langile guztiek dute euskaraz egiteko gaitasuna.

Zer hobetuak:

- Langile guztiek sakon ezagutu behar dituzte bete beharreko hizkuntza irizpideak.

Helburu estrategikoa(k):

- Udal langile guztiek hizkuntza irizpideak behar bezala ezagutzea eta betetzea.
- Udalean langile berri bat lanean hasten den bakoitzean harrera linguistikoa egitea.

1.0.3. arloaren adierazleak

1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.
	<ul style="list-style-type: none">• Erabilera plana osatzerakoan, langileen iritziak eta beharrak kontuan izatea. Erabilera planaren eta hizkuntza-irizpideen berri emateko berariazko aurkezpen saioak egitea.• Erabilera planean aktiboki parte hartu dezaten, langileei ekarpenak eskatzea eta lorpenen berri ematea.• Langileen harrera-protokoloan (udalean langile berri bat hasten den bakoitzean), hizkuntza-harrera kontuan izatea: hizkuntza-irizpideen azalpena txertatzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
50,70	10,14	75	15	24,30	4,86

1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte				
	<ul style="list-style-type: none"> Langile guztiek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
86	22,93	100	26,67	14	3,74

1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak				
	<ul style="list-style-type: none"> Langile guztiek erabilera plana ezagutzea (eta hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea). 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
82,30	10,97	95	12,67	12,70	1,70

1.0.4 arloa. HIZKUNTZA GAITASUNA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
87,40	0	100	0	12,60	0

Egoera:

Udal ordezkari eta langile guztiek badute euskaraz lan egin eta beren funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna.

Egindakoak:

Udalan hizkuntza eskakizunak eskatu eta betetze maila bermatu da. Hau da; lanpostu-zerrendako lanpostu guztiek jarrita dute hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data.

Indarguneak:

- Ordezkari politiko guztiak euskaldunak dira.

Zer hobetuak:

- Komeni da langile nahiz arduradun politikoek lana euskaraz egiteko dauden erremintak ezagutzea.

Helburu estrategikoa(k):

- Langileek euren euskara maila hobetzea. Udal langileek euskaraz lan egiteko gaitasun gero eta hobe izatea: euskaraz sortutako testuen hizkuntza-egokitasuna hobetzea.
- Langile eta arduradun politikoek ezagutu ditzatela lana euskaraz egiteko erremintak: itzultzaileak, aplikazioak...
- Langileek sortutako testuen hizkuntza-egokitasuna hobetzea.
- Hautaprobetan, derrigortasun hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea.
- Derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak betetzen jarraitzea. Lanpostu berri bat sortu aurretik, Euskara Zerbitzuari jakinaraztea, beti; Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzaren txostena (ez-loteslea) eskatu eta hizkuntza-eskakizuna zehazteko.

1.0.4. arloaren adierazleak

1.0.4. 12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	
	<ul style="list-style-type: none">• Langileak euskara maila hobetzera animatzea.• Funtzioak ahoz betetzeko langileen beharrak identifikatu ondoren, berriazko prestakuntza eskaintzea.	

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
86,50	0	100	0	13,50	0

1.0.4. 13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko (1.0.4.13)	
	<ul style="list-style-type: none">• Langileak euskara maila hobetzera animatzea.• Funtzioak idatziz betetzeko langileen beharrak identifikatu ondoren, berriazko prestakuntza eskaintzea.	

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
75,70	0	100	0	24,30	0

1.0.4. 14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko (1.0.4.14)
	<ul style="list-style-type: none"> • Arduradun politikoei ere hizkuntza-trebakuntzarako eskaintza luzatzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
100	0	100	0	0	0

1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
36,16	16,28	75	33,76	38,84	17,48

Egoera:

Udalak euskara sustatzeko jarrera adierazten badu ere, ez du komunikazio-estrategia zehatzik lan-ildo horretarako. Orain arte ez da sistematizatu erabilera-planen komunikazioa.

Euskararen biziberritzearekin lotutako guneetan Euskara Zerbitzuko ordezkari politikoak eta zerbitzuburuak hartzen dute parte.

Egindakoak:

Indarguneak:

- Udaleko euskara-hezkuntza sailaren eta komunikazio zerbitzuen arteko koordinazioa ona da.

Zer hobetuak:

- Interes talde zehatzei (langileak, herritarrak...) komunikazioa nola egin zehaztu behar da. Xede-taldeko, komunikazio-jario berezitua eskaini beharko litzateke.

Helburu estrategikoa(k):

- Herritarrek eta langileek planaren berri izateko komunikazio-estrategia lantzea.

- Barne-komunikazioa lantzea eta abian jartzea.

1.0.5. arloaren adierazleak

1.0.5. 15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak euskararen biziberritzeari begira egiten duenaren berri ematea, aktiboki eta sistematikoki (komunikazio estrategia lantzea): herritarrei, elkartei, langilei, enpresei, erakundeei... 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25	7,88	75	23,63	50	15,75

1.0.5. 16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du				
	<ul style="list-style-type: none"> • Halako ekimenetan parte hartzen jarraitzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
62,20	8,40	75	10,13	12,80	1,73

1.0.6 arloa. HIZKUNTZA KLAUSULAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
48,75	29,25	74,50	44,70	25,75	15,45

Egoera:

Hizkuntza-klausulak kontratazio eta dirulaguntza gehienetan txertatzen dira. Baina ez zaie jarraipen sistematikorik egiten.

Egindakoak:

Dirulaguntza izendunetan hizkuntza-baldintzen jarraipen-fitxak egin dira, genero-fitxarekin batera.

Indarguneak:

Zer hobetuak:

- Hizkuntza-klausulen jarraipen sistema bat sortzea: eraginkorra, eta sistematikoki aplikatzeko modukoa; kontratrazioetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan.

Helburu estrategikoa(k):

- Kontratuetao hizkuntza klausulak zehaztea, txertatzea eta horien jarraipen sistematikoa egitea.
- Dirulaguntzetarako eta udal baimenetarako hizkuntza klausulen ereduak zehaztea.

1.0.6. arloaren adierazleak

1.0.6. 17	Kontratuetao hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	<ul style="list-style-type: none">• Udalak egiten dituen kontratuetao kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartzea; herritarren bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berbetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
50	4,50	100	9	50	4,50

1.0.6. 18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.
	<ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea (euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko); batez ere, xedean hizkuntza-erabilera dutenak.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
75	4,50	100	6	25	1,50

1.0.6. 19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetao hizkuntza-klausulen betetze-mailari.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Kontratazioetako hizkuntza-klausulak argi zehaztea Idazkaritza sailarekin eta gainerako sailei horien berri ematea. • Kontratazioetako hizkuntza-klausulen betetze mailaren jarraipena egiteko prozedura eraginkorra diseinatzea (gainerako saileko arduradunekin) eta sistematizatzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
25	6,75	50	13,50	25	6.75

1.0.6. 20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.				
	<ul style="list-style-type: none"> • Idazkaritza sailarekin elkarlanean adostutako hizkuntza-klausulen berri ematea gainerako sailei. Jarraipena egiteko, prozedura eraginkorra diseinatzea (gainerako saileko arduradunekin) eta jarraipena egiteko laguntza eskaintzea. 				

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
75	13,50	90	16,20	15	2,70

2. ARDATZA: ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
83,04	581,01	93,11	651,75	10,07	70,45

ERRONKAK

- **Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.**
- **Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.**

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
93,75	196,88	98,40	206,64	4,65	9,76

2.1.1 arloa. IRUDIA

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
94	39,48	100	42	6	2,52

Egoera:

Euskaraz edo ele bitan daude udal errotuluak. Erakundearen errotulazioa finkoa, nagusiki (%80a), ele bietan dago eta gainerako %20 euskaraz. Egindako behaketetan, ordea, alde nabarmenak atzeman dira udal eraikinen artean. Azpimarratzeko da Erribera Kulturguneko kasua; errotulazio-elementu finkoak erabat euskaraz daude. Aldi baterako errotuluen eta ikus-entzunekoen kasuan, bestelakoa da egoera. Gehienak euskara hutsean daude (%80), ele bietan gainerakoak (%20).

Udaleko komunikazio bitarteko digitalak ele bitan kudeatzen dira (sare sozialak nahiz webgunea); euskara eta gaztelera (ia) modu orekatuan. Gainerako argitalpenak, aldiz, nagusitasunez euskaraz izan ohi dira, batzuetan gazteleraz laburpen bat eginez (adibidez, Txioaria udal aldizkaria).

Agerraldi instituzional gehienak euskaraz egiten dira, baina herritarrei zuzenduriko bilera irekietan zalantzak sortzen dira hizkuntza-jokabideari dagokionez.

Egindakoak:

Indarguneak:

- Eraikin publiko berrietan (Erribera kulturgunea, adibidez) errotulu finko guztiak euskaraz daude.

Zer hobetuak:

- Komunikazio bitarteko digitalei eta agerraldiei begira, hizkuntza-kudeaketarako irizpideak aurrez zehaztea komeni da.
- Hizkuntza-egokitasuna eta udal hizkuntza-irizpideak bermatzeko, bereziki ikusgarritasun handiko euskarrien kasuan, komeni da Euskara Zerbitzutik pasatzea (ahal dela, garaiz).

Helburu estrategikoa(k):

- Hizkuntza-irizpideak betetzea irudiarri lotutako adierazleetan.
- Hizkuntza-kalitatea zaintzea (egokitasuna, zuzentasuna).
- Arduradun politikoei agerraldietarako hizkuntza-irizpideak betetzea.

2.1.1. arloaren adierazleak

2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.
	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-irizpideak bete eta errotuluak eta ikus-entzunezkoak euskaraz izatea. Ahala denean, euskara hutsez (testua euskaraz eta gaztelaniaz antzekoa denean, euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean edo piktograma batekin, mezua argitzen denean).

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
56	44	60	40

2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude
	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-irizpideak bete eta argitalpenak, iragarkiak eta publizitateak ele bitan izatea (euskara lehenetsiz).

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
20	80	50	50

2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzea: hizkuntza-kudeaketa egokirako, agerraldi instituzionaletarako protokoloak egitea (agerraldi desberdinak sailkatuz).

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
80	10,08	100	12,60	20	2,52

2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzea; komunikazio digitala ele bitan izatea, euskara lehenetsiz.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
2,5	97,5	2,5	97,5

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
93,69	157,40	98	164,64	4,31	7,24

Egoera:

Euskaraz egiten zaio lehen hitza herritarrari. Elkarrizketa asko euskaraz izaten dira. Jendaurreko guneetan, ez dago "hemen euskaraz" gisako errotulurik.

Hala ere, lehen hitza euskara izanagatik, ezagunak diren edota gaztelaniaz hitz egiten duten herritarrekin, batzuetan, badago elkarrizketa gaztelaniaz izateko ohitura. Ez dago elkarrizketa elebidunak izateko ohiturarik.

Euskaraz aurkeztutako dokumentuei euskaraz erantzuten zaie; gaztelaniaz aurkeztutakoei gaztelaniaz edo ele bitan.

Herritarrentzako ikastaro gehienak euskaraz izan ohi dira. Irakasle ia denak euskaldunak dira, baina ez zaio jarraipenik egiten. Ikastaroetako hizkuntza-irizpideak ez dira zuzenean irakasleekin lantzen.

Egindakoak:

Hizkuntza-irizpideak zehaztuta daude.

Indarguneak:

- Euskaraz aurkeztutako dokumentuei euskaraz erantzuten zaie.
- Herritarrek bermatuta dute bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotze udal-zerbitzuak.

Zer hobetuak:

- Udal langileen jarrera proaktiboa: euskaldunekin elkarrizketak euskaraz izateko eta espresuki gaztelaniaz egiteko ez bada eskatzen, elkarrizketa elebidunak mantentzeko. Lehen hartu- emanean langileek aurrea hartu eta lehen hitza euskaraz esaten badute, euskaraz egiteko aukerak biderkatu egiten dira.
- Ez dago zehaztuta ikastaroek zein hizkuntzatan izan behar duten (irakasleak euskaldunak izanagatik, gehiengoaren esku geratzen da). Irakasle/begiraleei ez zaie hizkuntza-irizpide zehatzen berririk ematen.
- Espediente askotan ez dago modurik herritarrek zein hitzkuntzatan artatzea nahi duen begiratzeko.

Helburu estrategikoa(k):

- Hizkuntza-irizpideak betetzea.
- Idatziz nahiz ahoz, udal langile eta ordezkariak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko.
- Idatziz, euskaraz egiten duten herritarrei euskara hutsean erantzutea (sistematikoki).

2.2.1. arloaren adierazleak

2.2.1.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen
	<ul style="list-style-type: none">• Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten (aurrea hartu, lehen hitza euskaraz).

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
87,20	29,30	100	33,60	12,80	4,30

2.2.1.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	
	<ul style="list-style-type: none"> Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten. Udal langileak jabetu daitezela hizkuntza eskubideak bermatzearen garrantziaz. 	

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
97	40,74	100	42	3	1,26

2.2.1.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	
	<ul style="list-style-type: none"> Izena ematerakoan, euskararen ezagutzari buruz galdetzen jarraitzea. Ikastaro-hartzaileen arabera ezartzea ikastaroaren ikastaroa. Hizkuntza-irizpideak kultura-jaiak sailarekin eta irakasleekin batera lantzea eta jarraipena egiteko sistema adostea. 	

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
85	28,56	90	30,24	5	1,68

2.2.1.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	
	<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza-irizpideak betetzea langileek: euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei, ele bitan. Herritarrek hizkuntza ofiziala hatutzeko duten aukera (eskubidea) bermatuz, udalarekin tramiteak euskaraz egitera animatzea (sentsibilizazio-kanpainen bidez). 	

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
40	60	50	50

2.2.1.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz
	<ul style="list-style-type: none"> Langileek ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea, eta euskaldunei euskaraz bidaltzea dokumentuak eta euskaraz ez dakitela adierazi dutenei, ele bitan.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
80	20	100	0

2.2.1.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz
	<ul style="list-style-type: none"> Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuzentzen diren herritarren kopurua igotzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
64	0	80	0	16	0

2.2.1.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz
	<ul style="list-style-type: none"> Langileek eta arduradun politikoez ezarritako irizpideak betetzea eta urtez urte euskaraz zuzentzen diren herritarren kopurua igotzea.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
29	42	50	30

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
78,45	384,42	90,84	445,11	12,39	60,69

2.2.1 arloa. BARNE HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
95,81	140,85	100	147	4,19	6,15

Egoera:

Barne-batzar guztiak (formalak nahiz informalak) euskaraz egiten dira. Deialdiak, aktak eta barruko txostenak euskaraz idazten dira. Prozedura administratibo gehienak euskaraz jartzen dira martxan.

Egindakoak:

Zehaztuta dago batzarrak euskaraz egitea, baita lana euskaraz egitea ere.

Indarguneak:

- Batzarrak euskaraz egiten dira eta barruko txostenak ere bai.

Zer hobetuak:

- Langile batzuen arteko harremanak (batez ere, informalak) ez dira euskaraz.

Helburu estrategikoa(k):

- Hizkuntza-irizpideak betetzea.
- Langile guztien arteko harreman informalak (formalak bezalaxe) euskaraz izatea.
- Langileak sentibilizatzea eta eredugarri izatea euskararen erabileran: "udaletxean entzuten den hizkuntza (ere) Udalaren irudia da".

2.2.1. arloaren adierazleak

2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira
	<ul style="list-style-type: none">• Lan-bilerak euskaraz izaten jarraitzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
95,60	28,11	100	29,40	4,40	1,29

2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da
	<ul style="list-style-type: none"> Langileen arteko ahozko lan-harremanetan euskaraz egitea, eta euskaraz egitearen garrantziaz ohartzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
87,80	32,27	100	36,75	12,20	4,48

2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da
	<ul style="list-style-type: none"> “Udalean entzuten den hizkuntza Udalaren irudia (ere) bada” ideari jarraiki, udal-langileen lanorduetan beren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
86,50	0	100	0	13,50	0

2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira
	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egitea eta betetze-mailaren jarraipena egitea.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
80,86	17,86	100	0

2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.
	<ul style="list-style-type: none"> Ofizioz abiatutako prozedurak euskaraz lantzea.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
60	40	80	20

2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.
	<ul style="list-style-type: none"> Xedapen orokorrak euskaraz lantzea.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
80	20	90	10

2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago
	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz izatea lanari lotutako hizkuntza-paisaia eta betetze mailaren jarraipena egitea.

Hasierako egoera (%)		Aurreikuspena (%)	
Euskaraz	Ele bietan	Euskaraz	Ele bietan
80	20	100	0

2.2.2 arloa. KANPO HARREMANAK

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kuantitatiboak:

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
89,74	87,95	97	95,06	7,26	7,11

Egoera:

Sektore publikoko beste erakundeekin harremanak, ahoz nahiz idatziz, euskaraz izaten dira, gehienetan. Enpresa pribatuekin egoera askotarikoa da. Zenbaitetan, Euskal Herritik kanpoko enprekin ditu kontratazioak Udalak; kasu horietan, ezinbestean, erdaraz egin behar izaten da.

Egindakoak:

Indarguneak:

- Oro har, langile gehienek euskaraz egiten dute lehen hitza. Jarrera proaktiboa dute langile eta udal-arduradun gehienek.

Zer hobetuak:

- Jarraipen estuagoa egin behar da. Hizkuntza-irizpideen berri ondo eman eta langileak irizpideak betetzeko trebatu/ahaldundu.

Helburu estrategikoa(k):

- Hizkuntza irizpideak betetzea.
- Erakunde publikoen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.
- Erakunde pribatuekin ere euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.

2.2.2 arloaren adierazleak

2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.
	<ul style="list-style-type: none"> Langileei irizpidearen berri eman eta betetzeko ahalduntzea.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
87	25,58	100	29,40	13	3,82

